Zarauzko Udala

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS**
ZARAUTZERA ETORRI BERRIAK DIREN LEHEN HEZKUNTZAKO HAURREI EUSKARA INDARTZEKO IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZUA **2023IK200015**		**SERVICIO DE REFUERZO DEL EUSKERA PARA NIÑAS Y NIÑOS DE EDUCACIÓN PRIMARIA RECIÉN LLEGADOS A ZARAUTZ** **2023IK200015**
1.- Xedea: Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua da ondorengo lanak egitea: Zarautzera etorri berriak diren Lehen Hezkuntzako haurrei euskara indartzeko ikastaroak ematea. Kanpotik etorritako ikasleei euskararen ezagutzan aurrera egiten laguntzea, haurrak euskarara gerturatzea eta hizkuntzarekiko jarrera hobetzea izango da ikastaroen helburu nagusia. **2.- Esku-hartze taldearen ezaugarriak** Zerbitzua emateko, esku-hartze talde bat osatuko da. Taldeko kideek lizentziatu edo diplomatu titulazioa izango dute. Euskara irakasle izateko titulazio espezifikorik ez badute (Euskal Filologia, Magisteritza, Haur Hezkuntzako Gradua edo Lehen Hezkuntzako Gradua), glotodidaktika edo pedagogia arloko prestakuntza dutela ziurtatu beharko dute. **3.- Koordinazioa** Esku-hartze taldeko kideak konprometituta egongo dira proiektuan inplikatutako eragile guztien erakunde arteko koordinazio-sistemarekin. Koordinazioaren arduradun nagusia Udaleko Euskara arduraduna izango da. 4.- **Memoriak eta lan-programazioa**		**1.- Objeto** El contrato que se realizará en base a este documento tiene por objeto la realización de las siguientes tareas: impartir cursos de refuerzo de euskera a las niñas y niños de Educación Primaria que hayan llegado recientemente a Zarautz. El objetivo principal de los cursos será ayudar al alumnado llegado de fuera a avanzar en el conocimiento del euskera, acercar a las niñas y niños al euskera y mejorar su actitud. **2.- Características del equipo de intervención** Para la prestación del servicio se constituirá un equipo de trabajo. Los miembros del grupo estarán en posesión de la titulación de Licenciatura o Diplomatura. En el caso de no poseer titulación específica para ser profesora o profesor de euskera (Filología Vasca, Magisterio, Grado en Educación Infantil o Grado en Educación Primaria), deberán acreditar formación en glotodidáctica o pedagogía. **3.- Coordinación** El equipo de intervención ha de comprometerse con un sistema de coordinación interinstitucional de todos los agentes implicados en el proyecto, del que todos serán partícipes. El responsable general de coordinación será la responsable de Euskera del Ayuntamiento. **4.- Memorias y programación del trabajo**

Kontratuak indarrean dirauen bitartean, esku-hartze taldeak eskatzen zaizkion urteko memoria guztiak aurkeztu beharko dizkio Udalari.		El equipo de intervención presentará al Ayuntamiento las memorias anuales que requiera a lo largo de la duración del contrato.
Horrez gain, eta Udalak hala eskatzen badio, bere lanari eta hartzaileei buruzko txostenak ere aurkeztu beharko ditu, une oro horien konfidentzialtasuna zainduta.		El equipo de intervención facilitará todos aquellos informes relativos a su trabajo y a las personas destinatarias que sean requeridas por el Ayuntamiento, respetando en todo caso la confidencialidad de los mismos.
5.- Esku-hartze taldearen zereginak		**5.- Funciones del equipo de intervención**
– Zarautzera etorri berriak diren Lehen Hezkuntzako haurrei euskara indartzeko ikastaroak ematea.		– Impartir cursos de refuerzo del euskera a las niñas y niños de Educación Primaria recién llegados a Zarautz.
– Honako hauekin koordinatzea: aholkulariak, orientatzaileak edo zentroek izendatutakoak, gurasoak eta Euskara arduraduna (zerbitzuaren aurkezpena, jarraipena eta ebaluazioak egiteko).		– Coordinarse con las personas consultoras, orientadoras o aquellas que designen los centros, con los padres y madres, así como con la responsable de Euskera para la presentación, el seguimiento y las evaluaciones del servicio.
– Kasu desberdinen bilakaera aztertzea, eta proiektuaren beraren ebaluazioan ere parte hartzea.		– Estudiar la evolución de los distintos casos, así como participar en la evaluación del propio proyecto.
– Orokorrean, udal arduradunak adierazitako jarraibide eta orientazioak betetzea.		– En general seguir las directrices y orientaciones marcadas por la responsable municipal.
– Prozesuaren amaieran, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzaren azken txostena egitea. Erabiltzaileen datuak generoaren arabera sailkatuko dira, eta nesken edo mutilen parte-hartzearen berezitasunak jasoko dira.		– Elaborar un informe final de cada persona usuaria del servicio al término del proceso. Los datos de la misma se clasificarán en función del género y se recogerán las particularidades de la participación de niños o niñas.
– Arreta berezia jarriko dute nesken eta mutilen arteko harremanetan berdintasuna eta tratu onak sustatzeko.		– Pondrán especial atención en fomentar la igualdad y el buen trato en la relación entre los niños y las niñas.
– Horretaz gain, ikasleen asistentziaren eguneroko jarraipena ere egingo dute.		– Asimismo, se realizará un seguimiento diario de la asistencia del alumnado.
6.- Taldeen osaera		**6.- Composición del grupo**
Lehen hezkuntzako zentroek bidalitako zerrenden arabera osatuko dira taldeak, haurren adina eta maila linguistikoa kontuan hartuta.		Los grupos se formarán de acuerdo con las listas que remitan los centros de educación primaria, teniendo en cuenta la edad y el nivel lingüístico de los niños y niñas.

8 talde osatuko dira gehienez, eta astean bi orduz arituko dira. Talde bakoitzean gehienez 8 ikasle egongo dira. Salbuespenenak aztertuko dira.		Se formarán 8 grupos como máximo con una dedicación de 2 horas semanales. En cada grupo habrá un máximo de 8 alumnos. Se estudiarán las excepciones.
7. Zerbitzua		**7. Prestación del servicio**
Zerbitzua, oro har, herriko ikastetxeetan eskainiko da. Dena den, egoerak hala eskatzen badu, Zarauzko beste egoitza batean ere eskaini ahal izango dira.		En general, el servicio se ofrecerá en los centros escolares de la localidad. No obstante, si las circunstancias lo requieren, también se podrán ofertar en otro local de Zarautz.
Saioak gutxi gorabehera azarotik maiatzera bitartean izango dira, biak barne. Talde bakoitzak astean ordubeteko bi saio egingo ditu, eguerditan edo 16:30etik aurrera, eskolekin eta Euskara Departamentuarekin erabakitako egun eta orduetan.		Las sesiones serán aproximadamente de noviembre a mayo, ambos inclusive. Serán dos sesiones semanales de una hora por grupo, al mediodía o a partir de las 16:30 horas, en los días y horas acordados con las escuelas y el Departamento de Euskera.
Saioekin hasi aurretik, zerbitzua prestatu, koordinatu eta martxan jarriko da.		Previamente al inicio de las sesiones se realizará la preparación, coordinación y puesta en marcha del servicio.
Hiru hilean behin jarraipen bilerak egingo dira ikastetxe bakoitzak izendatzen dituen erreferentziazko pertsonekin.		Cada tres meses se realizarán reuniones de seguimiento con las personas de referencia que designe cada colegio.
Saioen aldia bukatu ondoren, programaren ebaluazioa eta azken txostena egingo dira**.**		Concluido el periodo de sesiones, se realizará la evaluación del programa y la elaboración del informe final.